

scène l'histoire de tout un peuple, illustrée, racontée, narrée, par Hélène Etchecopar qui nous dévoile dans un jeu de masques et de lumières, la vitalité d'un théâtre basque, non pas figée dans ses structures traditionnelles mais plutôt curieux des idées nouvelles. **Théâtres basques...** retrace le parcours d'un théâtre historique toujours en devenir...

Véronique Inchauspé



Euskarazko lehen soinuak [Ordenagailu-artxiboa]
Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2000. - 1 diska konpak-
tua : kol. ; 12 cm. - ISBN: 84-8419-967-3

Euskaraz grabaturiko lehen soinuak 1900 urtekoak dira. Urte hartan Parisen izandako Erakusketa Unibertsalean euskal abesti batzuk eta euskaraz buruturiko zenbait irakurketa grabatu ziren garaiko teknologiak ahalbideturiko sistemarekin. Eusko Ikaskuntzak grabaketa haien lehen mendeurrena dela eta, aurreneko aldiz argitara ematen ditu grabaketa hoiek. CD-Rom batean euskara teknologiaren garapenarekin beti batera joaten dela erakutsi nahian.

CD-ROM-aren hasieran, XX. hastapeneko Pariseko, soinua sortzeko erabiltzen ziren tresnen eta orduko jendeen irudiak agertzen dira, garai hartako musika ezti batek lagundurik. Irudi eta musika horier esker, CD-ROM-aren erabiltzailea segidan horrelako giro berezi batean murgiltzen da.

CD-ROM-aren sarreran, honen ekarpen eta xehetasunak azaltzen dira. Horrelako CD-Rom bat ateratzearen zergaitia, iaz, 2000. urtean, Pariseko Erakusketa Unibertsalean, euskarazko grabaketak egin ziren 100. urtemuga ospatzea edo oroitaraztea izan zen. Lan hau, Iñaxio Lopez Aranari esker egin da, Eusko Ikaskuntzako kide honek ilunpetik grabaketa horiek atera ditu.

Ondotik ber sarreran, sarrera historiko bat ere agertzen da: garai hartan grabaketen inguruko ideia, Pariseko *Société d'Anthropologie* elkartearen sortu eta mamitu omen zen, Azoulay-ren eskutik. Erakusketa zela eta, kontinente guzietatik bildutako hizkuntza desberdinetako grabaketen egitea zen helburu, abiatu berria zen *Musée Phonographique*-aren fondoak aberasteko eta osatzeko gisan. 1900.eko maiatza eta azaroa artean eginak izan dira grabaketak. Nori eginak izan diren ez da agertzen haatik.

Balio zientifikoa duten grabaketen lortzeko 3 sistema erabili ziren:

1. Munduko hainbat hizkuntzetara izan den San Lukas Ebanjeliaren Seme Iriolearen alegia irakurrarazi. Era horretara munduko hizkuntzen arteko konparaketa linguistiko eta antropologikoa errekiago egin daitekeelako.
2. Kasu batzuetan testu bera bi pertsona ezberdinek irakurtzen dute. Euskarazko grabaketan kasuan, San Juan Ebanjeliaren 20. kapituluaren zatia bi zuberotarrek irakurtzen dute (hizkuntza berekoak izanagatik, leku batetik bestera izan daitezkeen aldaerak errejistratzeko).
3. Garai hartan jende ainitz analfabetoa zenez, kantua erabili zuten grabatzeko.

Izan zituzten zailtasunak ugariak izan ziren: Kultura mailakoak (Musulmanek ebanjelioa ez zuten irakurri nahi); era berean kantu satirikoaren atxemaitea zaila gertatu zitzaion. Baina hau beste hizkuntza batzuetan gertatzen zen, euskararen kasuan ezberdina zen.. Orokorrean, alaitasun, oinaze eta gerla oihu biziki guti bildu omen zituzten.

CD-Rom-a, sarrera, bost kantu amodiozkoak eta satirikoak, irrintzina eta hiru ebanjelioko testuetaz (bi San Juan-ekoak eta bat San Lukas-ena) egituratzen da. Azken hiru atalak, aldi guziz Azoulay-ren sarrerattoa frantsez itzulpenarekin. Azoulay-k bere sarreran erraiten dauka zoin euskalkia den eta kantuaren generoa (satirikoa/amodiozkoa). Izenburua frantsesera itzultzen du eta batzuetan lekukoaren sexuaren berri ere emaiten digu (gizonezkoa, emakumezkoa).

Joan den mende hastapeneko euskarazko soinuaren digitalizatzea oso gauza ona dela deritzot. Lan honi esker, ikerleek euskarazko lehen soinuak iker ditzaketelako, horrelako galderari erantzuna bilatuz:

- kantuek aldaketak jasan dituztea denboran zehar? (oraino kantatzen badira).
- Fonetika mailan ahotsak, soinuak, fonemak, berdin ahoskatzen al dira?
- Azentuerak eta entonazioak gaur egungoaren itxura al du?
- Denboran zehar lexia aldatu ote da? Morfologia aldatu ote da? (nahiz eta azken puntu honen ikertzeko idatzizko testuak baditugun grabaketa hau baino zaharagoak direnak).

CD-Rom-a oro har ongi egina da. Hastapeneko irudi eta melodiak gure buruak XX. mende hastapenean kokatzen laguntzen gaituzte. Sartzea biziki ongi egina da, lehenik CD-Rom-aren zergaitia esplikatzen baitigu, baina baliogarriena, sarrera historikoa da. Erran nahi baita sarrera honek ongi adierazten digu zer helburu eta xederekin eraman zuten lan hori garai hartan. Damugarri dena bi euskalki besterik agertzea da, hau da gipuzkera eta zuberera. Horrez gain pena da grabaketak egiterakoak kantuen eta irakurketaren baliatzea da, jendeak ez baititu soinuak mintzo den bezala beti ahoskatzen, adibidez: *Maitia nun zira*, “M” bi bokalen artean hitz lasoan zubereraz ez da ahoskatzen, kantuetan berriz bai. CD-Rom-a eskuratzean bestalde, azalean ez da gauza edo xehetasun haundirik aurkitzen. Sarrera bat ba al dago?, zer soinu mota aurkitzen dugu bertan? Hala ere egin dugu gutiatsi lan honen garrantzia, XX.mende hastapeneko testigantza historikoa baitugu hau, nahiz eta soinuaren kalitatea eta erabilitako erizpideak gaur egun hain baliogarriak ez izan.

Aintzina Mazusta